

txintxarri

Itzuli dira!


#sanpedrojaiak22
#sorginjaiak22

 **Ges**
aseguruak

 **Gora San Pedro Jaiak!**
Gora Lasarte-Oria!

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!





Kalitatea dastatu

Gure ogiak:

*Cristal
Molde Cristal*

Parisien

Txabola

Mendiko

Txapeldun

Leña lighth

Espelta

Vital

Artoa

Salud

Artoa zerealekin

Aleman

Molino

Verde

Espelta zerealekin

Ogicol


Kurkuma, intxaurreak eta mahaspasak

Ondo pasa egun hauetan!
Gora San Pedro Jaiak!



Bila zabiltzan hori... ziur hemen aurkituko duzula!

Iritsi d(ir)a eguna(k)!



Gora sanpedroak, eta gora Sorgin Jaiak!

Pozik nago laguna, iritsi da eguna, biok elkar ikusiko duguna; atzo amets zirenak, beteko dira denak... abesten dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek. Egia da, pozik gaude, itxaronaldi behar baino luze eta neketsuago baten ostean bueltan direlako sanpedroak eta Sorgin Jaiak, beti ezagutu izan ditugunak, eta elkar ikusiko dugulako berriro txosna, kontzertu, herri kirol, bertso saio edo norberak nahi duen ekitaldian, ugari izango baitira aukeran hilaren 28tik uztailearen 2ra. Zenbatetan amestu ote dugun itzulera horrekin! Akabo ordutegi murrizketak, formatu txikiak, distantzia sozialak eta antzekoak, berriz ere kaleak festa giroz, alaitasunez eta

kolorez betetzeko egunak datoz, elkarrekin gozatzekoak!

Uztailearen 3an hitz egingo dugu, ajea fisikoa nahiz emozionala ez delako nolana hikoia izango, baina TXINTXARRI-ko lantaldeko kideok ere behin eta berriro amestu dugu festen aurreko zenbaki berezian berriz ere jardueraz betetako egitarauak iragartzearekin, ospakizun egunetan protagonista izango direnak elkarrizketatzarekin, etxean jasoko duzuen 32 orriko agerkari ahalik eta erakargarriena egitearekin. Esan gabe doa hilaren 28tik uztailearen 2ra plazaz plaza eta kalez kale ibiliko garela kamerak eskuetan, aurtengo jaien berri gertutasunez eta euskaraz emateko, beti bezala. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu festetan jarduerak antolatu dituzten erakunde, eragile eta norbanakoei, haien eguneroko lana baita aldizkari honen (eta gainerako guztien, berezi ala arrunt izan) mamia. Eta eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu baita ere iragarleei, haien konfiantza eta laguntzagatik, eta berripaper honen orriei kolore ukitu berezia emateagatik. Bejondeizuela!

Luzamendutan ibili gabe, goza ezazue guztiok iristear diren ospakizun egunez, kendu hautsa blusei eta atera argazkiak kuadrillan, aurtengo sanpedroetan antolatu dugun lehiaketan parte hartzeko (informazio gehiagorako, irakurri 21. orria) eta festaren zurrunbilan murgiltzeko! Nolanahi ere, gogoan izan edozerk ez duela balio, eta elkarrekiko errespetuak izan behar duela ospakizun ororen oinarri, guztion hobe beharrez. Gora San Pedro Jaiak! Gora Sorgin Jaiak! Gora Lasarte-Oria!



Festa giroak herriko kaleak hartuko ditu, itxaronaldi luze eta neketsu baten ostean. TXINTXARRI

zitek
zientzieskola

Hobetzen lagunduko
zaitugu **zitek**-en!

Goikale 12, behea, Lasarte-Oria

943-36 31 06

www.zitek-akademia.com

info@zitek-akademia.com



2022

UDAKO IKASTAROAK

Uztailearen 4tik aurrera

2022 - 2023

IKASTASTURTEA

Irailaren 1etik aurrera



- LAGUNTZA TALDEAK
- IKASKETA TEKNIKAK
- LH - DBH - BATXILLERGOA - ZIKLOAK
- ZIENTZIAK - LETRAK
- HIZKUNTZAK:

- Ingelera (A1,A2,B1,B2 eta C1 mailak)
- Frantsesa (A1,A2,B1 eta B2 mailak)





SAN PEDRO JAIK LASARTE-ORIA 2022

RUBEN LUCAS GARCIA

Bi urteko itxaronaldiaren ostean, jai giroak beteko ditu Lasarte-Oriako kaleak berriZ ere. San Pedro Jaiak iritsi dira!! Blusak jantzita, hurrek, gazteek zein helduek egunean zehar edo gau aldean gozatzeko ekimenak izango dituzte bost egunetan gure herriko hainbat eremutan.



- **ARTISAU URDAITEGIA**
- **ETXEKO JANARIA**
- **BERTAKO HARAGIA**

Ondo pasa San Pedro Jaietan!

Kale Nagusia, 41 LASARTE-ORIA • Tel.: 943-36 39 12
Nafarroa kalea, 3 LEGAZPI • Tel.: 943-73 18 25
(Maialen) Karmelo Etxegarai, 10 DONOSTIA • 943-31 40 43 (lgandetan irekita)

Ekainak 28, asteartea

10:00 Ur festa, Maialen Chourraut kiroldegia. 5-12 urte arteko neska-mutilentzat. Parte hartzaileek igeri egiten jakin behar dute.

12:00 Haurren txupinazoa. Jaiei hasiera emango zaie. Ondoren, erraldoi eta buruhandien konpartsa abiatuko da, eta herriko kaleetatik barrena ibiliko da Joselontxo Txaranga eta Oaintxe in deu Txaranga lagun dituztela.

12:15 Patxintxi sarien banaketa, udaletxe zaharreko balkoia (Ttakun KE).

13:30 Joselontxo Txarangarekin kalejira Atsobakarreraino.

14:00 Haurrentzako herri bazkaria, Atsobakar parkea (Ttakun KE).

15:00 Ur jolasak, Atsobakar auzoa. (Ttakun KE).

16:00 Busti blai jarduera, Atsobakarreko plazetan barrena (Ttakun KE).

16:30 Sorgin Dantza abiatuko da Oriatik (Ttakun KE).

18:30 Oaintxe in deu Txaranga herriko kaleetan barrena.

19:00 Txupinazoa, eta Nagusilanen pregoia udaletxe bakoititik, Okendo plaza. Joselontxo eta Gautxori txarangen partaidetzarekin.

19:30 Artistas del gremio, Okendo plazan hasita herriko kaleetan barrena ibiliko dira.

20:00 Kai Nakairen kontzertua, Oriarte Landaberri patioiko gazte gunea.

21:30 Zikiro afari tradizionala, Okendo plaza (Ttakun KE).

23:00 Lasarte-Oriako danborrada, Okendo plazatik. (ATLO)

23:00 Dj Markeline, Oriarte - Landaberri patioiko Gazte gunea.

00:00 Dantzaldia Duo Imperial taldearekin, Isla plaza.

Ekainak 29, asteazkena**SAN PEDRO EGUNA**

10:00 Ttirriki Ttarrakarekin diana herriko kaleetan barrena.



11:00 Herri meza, San Pedro parrokian.

11:30 Haurrentzako parkea, Isla plaza.

12:00 Extremadurako danbolin- otzaileen ekitaldia, eta "migen" dastaketa, Okendo plaza (Extremadurako Etxea).

12:00 Kantu eta dantza jira abiatuko da Sagardotegi kaletik, eta herriko hainbat kaletan barrena ibiliko da (Ttakun KE).

12:30 Herri kirolak, Elizatze plaza.

13:00 Nagusilani omenaldia, Manuel Lekuona Kultur Etxea.

16:30 Haur parkea, Isla plaza.

17:00 Haurrentzako xexenak, Sasoeta ikastetxe bakoitiko patioa. Joselontxo txaranga girotuko du.

10k
kutxabank

HEMENDIK:

Gure dibidendu osoa euskal gizartearentzako proiektuetara bideratzen dugu, beste inork ez bezala.

**1.000 MILIOI
10 URTEAN**

ITURRI PROPIOAK.

18:00 Sardina jan herrikoa, Okendo plaza (Aterpea).

18:00 Sagardo dastaketa, Okendo plaza (Ttakun KE).

18:30 Dantza lehiaketa eta mini diskoa, Uzturre plaza (Sasoeta Sasoian).

19:10 Erromeria, Okendo plaza (Ttakun KE).

21:30 Dial al Sol gira, Andatza plaza (Cadena Dial). Abeslari/taldeak: Carlos Baute, Efecto pasillo, Julia Medina, Miriam Rodriguez, Ultima Llave, Depol, Paula Mattheus eta Moises Losada.

22:00 Kinada taldearen kontzertua, Okendo plaza.

22:30 Bertso saioa, Manuel Lekuona kultur etxean. Bertsolariak: Ane Labaka, Lierni Recondo, Nerea Ibarzabal, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Sustrai Colina, Gai-jartzailea: Maddi Labaka

23:00 NEMUX disko festa, Oriarte Landaberri patioko gazte gunea.

23:00 Dantzaldia Gauargi taldearen eskutik, Isla plaza.

00:00 Zezensuzkoa, Kale Nagusia.

Ekainak 30, osteguna

11:00 Pilota txapelketako finalak, Loidibarren frontoia (Intza). Benjamin, A Alebin, B Alebin eta Infantil maila.

11:30 Haur parkea, Isla plaza.

12:00 Lerroko dantza erakustaldia, Okendo plaza (Biyak Bat elkarte).

16:30 Haur parkea, Isla plaza.

17:00 Haurrentzako xexenak, Sasoeta ikastetxeke patioa. Joselontxo txarangak girotuko du.

18:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsa herritik barrena (LOZET).

19:00 Pilota partidak. Jubenil partida (Lau eta erdi) eta eskuz binaka profesionalak, Loidibarren frontoia: Arteaga II eta Eskiroz - Alberdi II eta Elizegi.

20:00 LOUHren kontzertua, Oriarte Landaberri patioko gazte gunea.

23:00 NEMUX disko festa, Oriarte Landaberri patioko gazte gunea.



23:00 Dantzaldia Azabache taldearen eskutik, Isla plaza.

00:00 Zezensuzkoa, Kale Nagusia (LOZET).

Uztailak 1, ostirala

11:30 Haur parkea, Isla plaza.

16:30 Apar festa, Isla plaza.

16:30 Joselontxo Txarangaren emanaldia herrian barrena.

17:00 Haurrentzako xexenak, Sasoeta ikastetxeke patioa.




Aterpeak gonbidatzen zaitu:

SARDINA-JATEA

Ekainaren 29an,
18:00etan Okendo plazan

*Herriko merkatariak
jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*



Zurekin kontaktzen dugu!



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

18:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsa herritik barrena (LOZET).

19:00 Motxila 21 taldearen kontzertua, Okendo plaza.

20:00 Motocross Freestyle taldeko gidarien erakustaldia, Andatza plaza.

22:00 El Drogasen kontzertua, Okendo plaza.

23:00 NEMUX disko festa, Oriarte Landaberri patioko gazte gunea.

23:00 La Decada Prodigiosa taldearen kontzertua, Isla plaza.

23:30 Dinbi Banda batukada, Okendo plazatik hasita.

00:00 Zezensuzkoa, Kale Nagusia (LOZET).

00:30 Zea Mays taldearen kontzertua, Okendo plaza.

02:00 Dinbi Banda batukada, Okendo plazatik hasita.



Uztailak 2, larunbata

06:00 Gautxori txarangarekin diana herriko kaleetan barrena.

06:30 Txokolatada, Elizatze plaza.

07:00 Xexenak, Sasoeta ikastetxeko patioa

10:00 Iturengo Ttuntturroak kaleetatik barrena ibiliko dira.

11:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsa Blas de Lezo kaletik, eta herritik barrena (LOZET).

12:00 Gizon eta zaldi arteko norgehiagoka, Atsobakarreko zelaia.

13:00 Voces Navarras taldearen jotak, Isla plaza.

17:00 Gaztetxoan danborrada, Kale Nagusitik abiatuko da eta herriko kaleak alaituko ditu (ATLO).

19:00 Mariachi Imperial Elegancia Mexicana taldea herriko kaleetatik barrena ibiliko da, Udaletxe Zaharretik irtenda.

22:00 Modus Operandi taldearen kontzertua, Okendo plaza.

22:45 Vulcano piroteknia etxe ospetsuaren su festa, Atsobakarreko zelaia.

23:00 NEMUX disko festa, Oriarte Landaberri patioko gazte gunea.

23:00 Dantzaldia Ibai Berriak taldearen eskutik, Isla plaza.

23:30 Psychoclownd Okendo plazatik irtenda, eta herriko kaleetatik barrena.

00:00 Sanpedroetako azken zezensuzkoa, Kale Nagusia.

00:30 Skakeitan taldearen kontzertua, Okendo plaza.



Gora San Pedro Jaiak!

DESDE 1961 ETIK
• KAFE & TEA •

www.cafesberasategi.com



Ondo pasa festetan!

16" edo 17" llanta

2 gurpil 4 gurpil

20€ 50€

18" edo handiagoak

2 gurpil 4 gurpil

35€ 80€



Ekipatu zure kotxea Continental gurpilekin eta 80€ bitarteko erregaia eskura dezakezu

uztillaren 30a arte



ile-apaindegia

Gora Lasarte-Oria!
Gora San Pedro Jaiak!

Geltoki kalea, 3
MUGIKORRA: 600 52 39 88
LASARTE-ORIA

Zumaburu, 18 Lasarte-Oria Tel: 943-36 24 63

Instrumentuak eta Lasarte-Oria astinduko ditu Dinbi Bandak

Pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, emanaldiei berrekin die herriko batukada taldeak. Uztailaren 1a girotuko du, gaua zehazki, bi saio eginda: 23:30ean bat, eta 02:00etan bestea. 10 urte ospatzeko ekitaldiak prestatzen ari da, irailaren 24rako

Iñigo Gonzalez Sarobe

Bakarrik, herriko eragileren batekin elkarlanean, Lasarte-Orian bertan, Euskal Herrian zehar, are urrutiago... Dinbi Bandaren doinu eta eritmoak gure belarrietatik sartu eta bihotzetaraino iritsi dira, eta, ohartzerako, batukada talde horrek 10 urte beteko ditu. Estatutuei erreparatuta, aurtengo abenduan itzali beharko lituzkete kandelak, orduan eratu baitziren ofizialki euskara sustatzea helburu zuen aisialdi elkarte gisa, baina ordurako arituak ziren Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolaren hamargarren urteurrenean, 2012ko San Pedro Jaietan edo Euskararen 8. Maratoian, adibide batzuk jartzearren. Pandemiak estu hartu du gizarte osoa, eta kaleak girotu

eta alaitzeaz arduratzen diren taldeak, zer esanik ez. Bi urte igaro ditu geldirik Dinbi Bandak, eta aurten hasi da berriro martxa hartzen. 22. Korrikan eta Zumaiko festetan jo ostean, sanpedroetan egingo dute emanaldia, uztailaren 1ean, gauean: 23:30ean aurrera eramango dute lehen saioa, Okendo plazatik abiatuta, eta 02:00etan errepikatuko dute, toki beretik hasita. Nork ez ditu gogoratzen COVID-19aren aurreko azken festak, eta taldearen atzean sortu ziren ilara luzeak? Bada, beste gauza askorekin batera, aurten itzuliko dira.

Urtemuga biribilaren aitzakian, Dinbi Bandako hiru kiderekin elkartu da TXINTXARRI: Isa Fernandez de Agirre, Cristina Pinedo eta Roberto Fernandezekin.

Hiru horiek ari dira 10 urteen ospakizun ekitaldiak antolatzen: jakinarazi dute irailaren 24rako (larunbata) egun osoko programa prestatzen ari direla, mimoz eta ilusioz. Hori ez da mintzagai bakarria izan: sorrera, emanaldiak, gaur egungo egoera edota lokal baten beharra ere izan dituzte hizpide, eta nola ez, anekdotak, ordenagailu eramangarri batean argazki historikoak ikustetik oroituak. Izan ere, 10 urte ez dira egunero betetzen, eta askorako ematen dute.

Tailerretatik, taldea osatzera

Ttakun Kultur Elkartek zenbait batukada tailer antolatu zituen 2011n. Horrek bultzatuta, talde bat eratzea erabaki zuten, eta 2012ko abenduan erregistratu



Dinbi Bandako kideak Zumaiko festetan izan ziren apiril amaieran. DINBI BANDA

zituzten estatutuak, Dinbi Banda aisialdi elkarte gisa. Nondik dator izen hori? "Bagenituen hautagai batzuk, baina azkenean Dinbi Banda aukeratu genuen, danborra [batukadetan erabiltzen den instrumentu bat] eta taldearen arteko hitz joko bat egiteko, onomatopeia itxura zuen izen bat nahi genuen". Antza denez, hizkiekin eratutako trikimailu horrek nahastu egin izan ditu emanaldien antolatzaileak,

**DINBI BANDAK
IRAILAREN 24AN
OSPAUKO DITU 10
URTEAK, EGUN OSOKO
EGITARAU BATEKIN**

egitarauetan behin baino gehiagotan tokiz aldatu dutelako letra bat, eta "Dinbi Danba" taldearen saioa iragarri. "Horiek ez gara gu", ohartarazi du Fernandezek.

Elkarte gisa sortu zirenerako saio batzuk eginak zituzten, herri mailan batez ere. Hilabete gutxi batzuk zeramatzen martxan, baina berehala izan zuten aukera plaza eta areto handiak ezagutzeko: Pirritx, Porrotx eta Marimotots

**"URTEROKO BORROKA
DA LASARTE-ORIAKO
UDALARI LOKAL BAT
ESKATZEA, ESPAZIO
BAT BEHAR DUGU"**



ETXEZARRETA HARATEGIA

Bertako okela • Urdaitegia • Eramateko janaria

*Ondo pasa sanpedroetan
eta asko disfrutatu festak!*



Hipodromo Etorbidea, 2 • Tel. 943-36 13 79 / 610 44 15 44 • LASARTE-ORIA

pailazoekin batera joan ziren Donostiako Kursaalera, Bilboko BECera, Gasteizera, Tolosara... "Izugarrizko esperientziak izan ziren horiek guztiak", oroitu dute Fernandez de Agirre eta Pinedok.

Orduz geroztik, emanaldi eta kolaborazio mordoa egin ditu Dinbi Bandak, gonbidatu zein antolatzaile gisara: esaterako, 2013tik 2015era Euskal Herriko Batukada Topaketak egin zituen Lasarte-Orian, toki askotatik etorritako taldeekin batera. Hurrengo bi aldiak Zornotzan eta Arrasaten egin zituzten, eta Manresara (Katalunia) ere joan izan dira zenbait urtetan. Elkarrizketan zehar beste hainbat toki aipatu dituzte: beste hainbaten artean, Ibarra, Lezo, Orrio, Zarautz, Zumaia, Irun, Donostia... Eta baita Uztaritzeko inauteriak ere, Ipar Euskal Herrian! Kazetaria bera ere harritu da toki horiek guztiak entzutean, Dinbi Banda ikaragarri mugitu izan denaren seinale. "Ezkontza eta enpresa afari batzuetara ere joan gara".

Espazio eske

2020ko martxoan lehertutako pandemiak eten egin zuen Dinbi Bandaren martxa. Ia bi urte eta gero, aurten hasi dira kideak berriro egurrean, sekulako ilusioz, baina ez nahiko luketen baldintzetan. Entseguak ostiral arratsaldeetan egiten dituzte, irailtik ekainera, Sasoeta LH ikastetxeko gimnasioan. "Urteroko borroka da udalari lokal bat eskatzea; aurten ere sartu dugu instantzia bat erregistroan, ea zer erantzuten diguten", azaldu dute Fernandez de Agirre, Pinedo eta Fernandezek. "Ez dugu sekulako espazio bat nahi, baina gutxienez bai gure instrumentuak gordetzeko leku bat; gaur egun,

taldekide ohi baten garajea erabiltzen dugu horretarako". Hasieran, Ttakun KEren musika tresnak erabiltzen zituzten, Euskadi Gaztea irratiak antolatutako Gaztea Parody lehiaketa irabazi zuten arte, 2012ko azaroan. Poltsikoratutako 2.000 euroak inbertitu zituzten. Bi urte geroago, Euskararen III. Ginkanan gailendu ziren, Algortako bertso eskolarekin berdinduta.

Irailean, ospakizun berezia

Esan bezala, herriko batukada taldeak 10 urte beteko ditu aurten, eta egitarau berezia prestatzen ari da irailaren 24rako, larunbata. "Goizean, tailer ireki bat egingo dugu Okendo plazan, herritar guztiei zuzendutakoa; ondoren, batupotea Lasarte-Orian zehar, 2012tik gaur arte taldekide izan diren 55 pertsonak elkartzeko; gero, horiek guztiek elkarrekin bazkalduko dute", azaldu dute. "Arratsaldean The Noise Makers eta Xilikonai taldeek joko dute Okendo plazan, eta festa gauera arte luzatuko da". Data hurbildu ahala emango dituzte xehetasun gehiago. Aurreratu dute argazki erakusketa bat ere egingo dutela, taldearen historia erreparatzeko.

Dinbi Banda eta batukada ezagutu nahi dutenek aukera dute taldearekin bat egiteko, Facebook edo Instagram bidez harremana egin edo dinbibanda@gmail.com helbide elektronikora idatzita. Grina pizteko aukera paregabea izan daiteke sanpedroetan egingo dituzten saioetara joatea; beti egin izan duten bezala, den-dena emango dute kideek, eskuetan baba eta zauriak izateraino, gu gu guztion bihotzak betetzeraino. "Lasarte-Orian jotzea da onena".



2012ko maiatzean, Kukuka eskolaren hamargarren urteurrenean jo zuen Dinbi Bandak. Lehen emanaldietako bat izan zen. DINBI BANDA



Dinbi Bandako kideak, 2016an, Sasoeta ikastetxeko gimnasioan, instrumentu eta jertseak soinean. DINBI BANDA

Carrefour express

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria



SARA ETXEBERRIA

20 urte igaro dira Sorgin Jaiek lehengoz gure herria sorginkeriaz eta edabez bete zutenetik. Azken bi urteetan, egoerari moldatutako egitaraua eskaini dute. Aurtengoan, berriz, programa osatuagoarekin urteurren berezia ospatuko dute. Erratzak kalera atera eta irrintzika herria esnatzeko irrikitan daude.

Bizitzeko

GIPUZKOA

5 PERTSONA BIZIPEN

BIZI ITZAZU!

Ondo pasa San Pedro Jaietan!

Deskontu eta beherapen handiak!

35. URTEURRENA

Bideo TIEN 21 Lagunak

- Finantziak neurrira
- Garraio zerbitzua
- Erabilitako gailuen jasotzea
- Aholkularitza espezializatua
- Preziorik onena

Etxekotresna elektrikoetan adituak

ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria
Tel: 943-37 31 34 | www.bideolagunak.com

Ekainak 28, asteartea**LGBTIQ+ KOLEKTIBOAREN
ESKUBIDEEN ALDEKO EGUNA**

18:00 Kuadrillen jaitziera, Isla plazatik abiatuta. Pijama jantzita.

20:00 Txupina, Okendo plaza.
Omendua: Izan lñurri.

20:30 LGBTIQ+ kolektiboaren aldeko manifestazioa.

23:30 Alu Zikiñak, Sagardotegi Kalea.

Ostean, Skakeo eta DJ Fantasia, Okendo plaza.

Ekainak 29, asteazkena

18:00 Orientazio jolasak, Okendo plaza ingurutik.

20:00 Triki poteoa Ankoker taldearen laguntzaz, Okendotik abiatuta.

00:30 Malakias eta Maixaren kontzertua, Okendo plaza.

**Ekainak 30, osteguna****SORGIN EGUNA**

14:00 Sorgin bazkaria, Okendo plaza.

Ostean, Bingo musikatua eta Gazte argazkia.

18:00 Olinpiadak, Kale Nagusia.

20:00 Oaintxe in deu txarangak girotuko du erdialdea.

22:00 Alargun Beltzak, Okendo plaza.

Ostean, Danborrada eta Lizartxo erromeria.

Uztailak 1, ostirala

17:00 Patata tortilla txapelketa, Okendo plaza.

Afari autogestionatua, Okendo plaza.

Uztailak 2, larunbata**ELKARTASUN EGUNA**

14:30 Elkartasun bazkaria, Okendo plaza. Ostean, tonbola.

18:00 Bertso poteoa, Okendotik abiatuta. Bertsolariak: Lierni Rekondo, Julene Iturbe, Eli Pagola, Oihane Arana eta Maite Saraola. Gai-jartzailea: Ane Labaka.

**PATATA TORTILLA
TXAPELKETA**

Sorgin Jaiak-ek aurten berrikuntza modura patata tortilla txapelketa antolatu du.

Arrautzak, patata, olio, tipula eta gatza. Horiek dira patata tortilla egiteko oinarriko osagaiak. Sukaldari bakoitzak, ordea, bere trikimailuak ditu goxoagoa egiteko. Sorgin Jaiak-ek herritarrak animatzen ditu euren tortillak egitera.

Parte hartu nahi dute herritarrak azkar ibili beharko dira gaur, hilaren 24a baita izena emateko azken eguna. Animatzen direnek bi bide dituzte inskribatzeko: 688 67 66 22 telefono zenbakira idatzi edo Jalgi kafe antzokiko zerrenda bete.

Banaka edo taldeka parte har daiteke, eta tortilla bakoitzeko 8 euro ordaindu beharko dira, Bizum bidez edo lehiaketaren egunean bertan, uztailaren 1ean, 17:00etan Okendo plazan.

Antolakuntzak eramango ditu osagai denak, eta baita suak ere. Bestalde, zartagin, ontzi eta mahai tresnak lehiakideek eraman beharko dituzte Okendora.



ILLARRETA

ITURGINTZA ETA IGELTSERITZA

BULEGOA

Geltoki kalea 14 - Lasarte-Oria
Tel. 943-36 31 47 eta 943-36 17 52

info@illarreta.com

**TAILERRA**

Oialume Bidea, 24 - Astigarraga
Tel. 943-33 17 54

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltseritza orokorra
- Etxebizitza eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen koordinazioa
- Arreta pertsonalizatua

Bi hamarkadako sorginkeria

Herriko jai alternatiboek 20 urte beteko dituzte aurten. Hori gogoratzeko aldera, TXINTXARRI-k bere artxibotik utzitako hainbat argazkirekin erakusketa egin eta Jalgi kafe antzokian jarri dute ikusgai antolatzaileek, uztail hasierara arte. Horren lagin txiki bat jaso dugu orri honetan



Sorgin Jaietako hainbat irudi ikus daitezke Jalgi kafe antzokiko hormetan. TXINTXARRI



Txosna jartzeko protesta ekitaldia, 2001eko uztailen. TXINTXARRI



Kamioi Rock izan da ekitaldi mitikoetako bat. TXINTXARRI



Sorgin eta aztiek behin eta berriro zeharkatu izan dute Oria ibaia. TXINTXARRI



Txosna gunea Okendo plazan jartzen dute, 2012tik. TXINTXARRI



Olinpiadak ez dira faltako aurtengo Sorgin Jaietan. TXINTXARRI



Pandemiak ez zuen eragotzi iaz txupina jaurtitzea, Okendo plazan. TXINTXARRI

**ELECTRICIDAD
ARREGUI**

Udaraz gozatzeko produktu paregabeak!

**GAS
BARBAKOA**

**GAS PAELLERA +
HANKAK + ZARTAGINAK**

**PLANTXA GRILL
ELEKTRIKOA**

600 85 75 86

www.electricidadarregui.com

tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

LASARTE-ORIA

GREMIOEN GIDA



Arreta profesionalena,
herrian bertan!

Elektrizitatea

ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

Iturgintza

ILLARRETA
ITURGINTZA
IGELTSERITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSERITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria
Tel. 606 686 615 eta 943-36 17 52.
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com

Kristaldegi eta leihoak

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37-17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

ISU
PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak,
barandak, toldoak, armairuak,
eltxo sareak eta gehiago...

Kale Nagusia, 46 behea. LASARTE-ORIA
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala USURBIL

☎ 943-36 64 95
✉ ventanas_isu@hotmail.com 

Barne-Diseinua

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361 471
www.sugatecocinas.com

Igeltseritza

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

Gida honetan
azaldu nahi baduzu
jar zaitez gurekin
harremanetan

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:
943 37-14 48 (106) / 646 82 44 66 | publizitatea@ttakun.eus

Sanpedroei, euskal ukitua

Ttakun Kultur Elkartek jarduera ugari prestatu ditu sanpedroetarako, herriko festetan ere euskararen presentzia bermatze aldera. Gure Patxintxiak sariek irekiko dute egitaraua: aurtengo omenduak Maite Labiano eta Jose Luis Mendiluze izango dira

Txintxarri

Ttakun Kultur Elkartek ekimen asko aurrera eramaten ditu urtean zehar, euskara eta euskal kultura sustatzeko asmoz. Zentzu horretan, San Pedro Jaiek ezin dute salbuespena izan, eta hilaren 28an hasiko diren festen egitarauaren barruan eragile horrek prestatutako zenbait ekitaldi topa daitezke. Gehienak pandemiak eragindako bi urteko etenaldiaren ostean itzuliko dira, Sorgin Dantza eta haurrentzako makarroi jana, kasu.

Gure Patxintxiak sariak, adibidez, iaz antolatu zituzten Ttakun KEK eta Lasarte-Oriako Udalak: Felixi Tapia (goian bego) eta Patxi Manchadok jaso zuten aitortza xumea, formatu are xumeagoan, COVID-19ak eraginda. Ekitaldi horren xedea da Lasarte-Oriako 65 urtetik gorako bi pertsona maitagarri aintzatestea urtero: aurtengoa Maite Labiano eta Jose Luis Mendiluzek jasoko dute, udaletxe zaharrek bakoian, pandemia aurretik bezala, 12:15ean, haurren txupina eta gero. Bea Egizabal aktore eta umoristak gidatuko du saioa.

2016tik egiten dira aitortza horiek. Hauek izan dira orain arteko irabazleak, urtez urte (2020an ez zuten sariri banatu, pandemiagatik): Rosa Ventoso eta Ramon Uribe-Etxebarria (goian bego); Apoloni Otxandorena eta Jesus Mari Egizabal; Pepi Arsuaga eta Joxe Usabiaga; Nika Alvarez eta Blas Delgado; eta Felixi Tapia (goian bego) eta Patxi Manchado.

Belaunaldi nagusienentzat bezala, gazteenentzat ere prestatu du ekimenik Ttakun KEK. Zehazki, makarroi jana eta ur jolasak, busti blai jarduera barne. Hauxe da egitaraua: 13:30ean, Okendo plazan elkartu eta kalejiran joango dira gaztetxoak Atsobakar auzoko parkeraino, Joselontxo txarangak lagunduta; 14:00etan, bazkaldu egingo dute; 15:00etan, ur jolasekin hasiko

**GURE PATXINTXIAK
SARIAK UDALETXE
ZAHARREAN EMANGO
DITUZTE, PANDEMIA
AURRETIK BEZALA**

dira; eta horren ostean, ur jolasak eta busti blai jarduera egingo dituzte. Antolatzaileek gogorazi dute autobus zerbitzua izango dutela hurrek, Atsobakarretik Oriara joateko, 15:45ean eta 16:00etan, geroxeago hasiko den Sorgin Dantzan parte hartzeko asmoa badute. Garraioa hartzekotan dabilzanek 50 zentimo ordaindu beharko dituzte bidaiari bakoitzeko, eta Ttakun KEren bulegora joan txartelak erostera (Geltoki kalea, 4). Era berean, makarroi janean parte hartzeko txartelak bertan hartu behar dira.

Sorgin Dantza, Oriatik

Azken asteetan Okendon zein Oriarte Landaberrin gogor entseatu eta gero, Sorgin Dantza herriko kaleetara eramateko prest daude bi zortzikoteak (txikia nahiz nagusia) eta atzetik joango diren herritar guztiak. Oria auzotik irtengo dira, Karmengo Ama kaperatik, 16:30ean. Ondoren, herriko hainbat kale zeharkatuko dituzte, erdigunekoak batez ere, eta ikusentzuleek aukera izango dute



Jarduera gehienak bezala, ohiko Sorgin Dantza ere itzuliko da aurtengoa. Oria auzotik hasiko da,

jarduera tradizional horrekin gozatzeko. 19:00ak baino lehentxeago iritsiko dira Okendo plazara dantzariak, eta bertan egingo dute azken emanaldia, arratsaldeko txupinaz nagusiaren aurretik.

**ORIA AUZOKO
KARMENGO AMA
KAPERATIK
ATERAKO DA SORGIN
DANTZA, 16:30EAN**

Lehen festa eguna ezin hobeto amaitzeko asmoz, zikiro afaria egingo du euskara elkarteak, Okendo plazako arkupeetan. Menua, ohikoa: entsalada, zikiroa eta postrea (edaria, kafea eta kopa, barne). Jarduera gastronomiko hori ere aurtengoa itzuliko da, eta herritarrek gustura hartu dute; horren erakusgarri, Ttakun KEK saldu dituen txartel mordoa. Urteak daramatzate Juantxo Prieto, Joxean Lasa eta kuadrillak gutizia hori prestatzen, eta

aldika productos selectos

ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa



*Ondo pasa San Pedro
Jaietan! Gozatu!*

Industrialdea, 19-20 LASARTE-ORIA • Tel: 943-37 70 89
aldika@aldika.com • www.aldika.com





Karmengo Amaren kaperatik, 16:30ean. Herria zeharkatu, eta Okendo plazan bukatuko da, 19:00etan. TXINTXARRI

adierazi dute aurtengoa izango dela lan hori egingo duten azken urtea. Afaria 21:30ean hasiko da, baina sua ordu batzuk lehenago piztu, eta arkumea erretzeari ekingo diote.

Hilaren 29an, San Pedro egunean, hiru ekimen aurrera eramango ditu Ttakunek. Horieta bat, eguerdian: kantu eta dantza jira. Xumela koruko lagunek dinamizatuko dute, Sagardotegi kaletik hasita, 12:00etan. Ohi bezala, herriko kale ugaritan abestu eta

dantzatuko dute, Okendo plazan bukatu aurretik. Enparantza horretan, Plasentziatik (Extremadura) etorritako danbolin jotzaileekin bat egin eta elkarrekin itxiko dute goiz musikala.

KANTU ETA DANTZA JIRA HILAREN 29AN IZANGO DA; XUMELA KORUKO KIDEEK DINAMIZATUKO DUTE

Arratsaldean, soinuren bat entzungo bada, sagardoak ontziaren kontra egiten duena izango da. Sagarra oinarri duen edari horren dastaketa antolatu du Ttakun KEk, 18:00etatik 20:00etara, eta ordu berean hasiko den sardina janarekin uztartuko du. Edatekoa Sollane, Telleri, Buenavista, Saltsate eta Zubillaga baserrietatik ekarriko du. Ontzi bakoitzak 2 euro balioko du. Egitasmo hori Aterpea merkatarien elkarteak egingo du. Bapo jan eta edan ostein,



Bar Remigio taldeak hilaren 30ean joko du. TXINTXARRI

Jalgin izango da zer entzun

Jalgi kafe antzokiak (Geltoki kalea, 4) kontzertu ugari antolatu ditu sanpedroetarako. Lehen festa egunean, hilaren 28an, DJ Syr etorriko da, eta 23:30etik aurrera egingo du emanaldia. Bi egun geroago, arratsaldeko zazpietatik aurrera, Bertsiorock egingo dute: Bar Remigio taldeak Bad Religion ekarriko du gogora, eta Txili Papar-ek, Red Hot Chili Peppers. Punk estiloak ere egun horretan hartuko du oholza: Arrotzak eta La Rekba etorriko dira herritarrek dantzan jartzera.

Amaitzeko, uztailaren 1ean Triki Sound ekitaldia egingo dute, 19:30ean hasita: Xabi Solano eta Xigor DZ (Zigor Lanpre herritarra) gonbidatu dituzte. Aipatu musika emanaldi horietaz guztietaz gozatu ahal izateko, lasarteoriatarrek ez dute sarrerarik ordaindu beharko.

herritarrek abagunea izango dute gorputza dantzan jartzeko, erromeria egingo baitute Okendon eragile hauek: Ttiriki Ttarraka eskola, Plaza Dantza eta Erketz Euskal Dantza Taldea.

SAGARDO DASTAKETA ETA ERROMERIA IZANGO DIRA TTAKUNEN AZKEN BI JARDUERAK

Jarduera horietan guztietan parte hartzea gonbidatu ditu herritarrek Ttakun KEk. Bide batez, jakinarazi du norbaitek informazio gehiago nahi badu egitasmoaren bati buruz, edo era batera zein bestera laguntzeko prest badago, idazteko 695 78 53 89 telefonora edo kultura@ttakun.eus helbide elektronikora.

Ttakun KEko lantalde osoak (TXINTXARRI-koak barne) San Pedro Jaiez ahalik eta gehien gozatzea opa dizue! Gora herriko festak!

Sasoeta-Zumaburu
herri-ikastetxea

Herrikoa, solidarioa eta etorkizunari begiratzen diona

ONDO PASA SANPEDROETAN! AUPA LASARTE-ORIA!

Kalbario bidea, 4 Tel. 943-36 12 26 eta Zumaburu, 13 Tel. 943-36 22 74

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Aurpegiko azala

- ✓ BERROREKATU
- ✓ BERRESKURATU
- ✓ BIRSORTU

PROBATU MAKINA

Ehunen birsortzea eta giharren indartzea tratamendu bakarrean.

ondo pasa festetan! Uistin Kalea z/g • Tel. 943-37 08 45

"Urte berezian iritsi da aitortza; ohorea da guretzat"

ENCARNI BAZTAN DEL RIO NAGUSILAN ELKARTEKO BOLUNTARIOA

Erizaintzatik erretiroa hartuta, Nagusilan elkartean boluntario gisa ari da lanean Baztan. Sanpedroetako txupina jaurtitzear arduratuko da, elkarte hori baita aurtengo omendua

Maddi Zaldua

Hamabi urte daramatza Encarni Baztan Del Rio herritarrek Nagusilanen boluntario lanak egiten. Erizain aritu da lanean, eta ogibidetik erretiroa hartu zuenean hasi zen elkartean kolaboratzen. Bizitza aktiboa eraman nahian, zorionsu sentiarazten du nagusiekin egon eta aritzeak, eta boluntariotzarekin bat egitera animatu nahi ditu lasarteoriatarrek. Batez ere gazteak, uneotan Nagusilanen ari diren ia denak hirugarren adinekoak baitira. Hunkituta dago bera kide den elkarte sanpedroetako omendua izango delako. Zilarrezko urteurrenean jasoko dute aitortza.

Nola bizi duzu omendu izatea. Ohorea da?

Ohore handia da, bai. Gainera, aurten bete dira 25 urte Lasarte-Oriako Nagusilan martxan jarri zenetik [Gogora ekarri nahi izan du Pello Artetxe Zulaika, bera izan baitzen bultzatzaile nagusia]. Hortaz, sanpedroetako omenaldiak data seinatu horrekin bat egitea sekulakoa da guretzat. Gure taldea omentzea baino askoz gehiago da aintzatespen hori. Boluntariotza lanari egiten zaio aitortza, eta baita lan hori modu desinteresatu eta isilpekoan, eskuzabalki egiten dutenei ere. Sekulako indarra eman digu egiten dugunak merezi duela sinetsi eta aurrera jarraitzeko.

Udalak egingo dizue aitortza. Nolako harremana duzue erakundearekin? Zer bait eskatzera edo jakinaraztera joan garenean beti izan ditugu atek zabalik. Marta Goiaran

zinegotzi zeneko urteetaraino egin nahi nuke atzera, haren laguntzarekin jarri baikenuen Jalgune Elkarte martxan Carlos Vegak eta biok. Eskerrak eman nahi dizkiot udalari, guran pentsatu eta omenduak izateko aukeratzeagatik. Ez dut aipatu gabe utzi nahi Ramon Uribe-Etxeberria parrokoa ere. Hark ere eskatzen genion guztia ematen baitzigun.

Zer da Nagusilan? Zein helburu ditu? Zahartze aktibo eta solidario baten alde ari den elkarte da,

"BOLUNTARIOTZA MAITASUN ADIERAZPEN BAT DA; HORI AGERTZEKO ESPAZIO BAT"



Erizaintzatik erretiroa hartu ostean hasi zen Nagusilan elkartean Encarni. TXINTXARRI

desiratua ez den bakardadearen aurka borrokatu, eta pertsona nagusien ahalduntzea aldarrikatzen du.

Zenbat boluntariok osatzen duzue herriko taldea?

Egun 20 bat boluntario gara, ia denak hirugarren adinekoak. Gazteak behar ditugu, horien laguntza ezinbestekoa litzatekeela uste dugu. Saiatzen ari gara horiek elkartera erakartzeko, baina ez da lan erraza izaten ari. Bide batez, tartetxo hau baliatu nahiko nuke horiei eta oro har gurekin aritu nahiko luketen herritarrei dei egiteko. Honako bide hauen bitartez jar daitezke elkartearekin harremanetan: 943 - 47 50 21 telefono zenbakia edota www.nagusilan.org helbide elektronikoa.

Zenbat urte daramatzazu zuk elkartean? Nola hasi zinen?

Hamabi urte egin ditut dagoeneko. Erizain aritu naiz, eta erretiroa hartu nuenean hasi nintzen Nagusilanen. Lanean ari nintzenean apenas nuen beste ezertan aritzeko aukerarik. Gerora, zertan aritu nahi nuen galdetu nion nire buruari, eta horrela hasi nintzen elkartean. Oso gustura nabil.

Zer eskaintzen dizu Nagusilanek?

Boluntariotza lana maitasun adierazpen bat dela uste dut, hori agertzeko espazio bat. Maitatzea ezinbestekoa da niretzat, eta bueltan ezer eskatu gabe maitatzen dugu boluntario lana egiten dugunok. Nagusilanekin parte hartzen dugun jardueretan nire aberastasuna eta indarra zenbaterainokoak diren ikusten



Gora San Pedro Jaiak!
Ondo pasa!

PATXI LARRAÑAGA
ANA IPARRAGUIRE
NAROA



HARATEGIA · TXARKUTEGIA
Kale Nagusia, 39 LASARTE-ORIA Tel. 943-37 26 68

"BOLUNTARIO LANARI EGITEN ZAIO AINTZATESPENA; POZ HANDIA DA ETA ESKERTUTA GAUDE"

dut. Entzuten ikasten dut eta nire arazoak, denbora batez bada ere, bazter uzteko ere balio dit. Zorionsu sentitzen naiz.

Hildako kide baten esaldi bat esan nahiko nuke: eman eta jaso egiten duzu. Irribarre bat, esku estutze bat, besarkada bat. Honek ez du diru-zorroa betetzen, bihotza bai, ordea. Ez da esaldi hutsal bat, errealitate bat da. Jendeak boluntariora modu horretan ikustea nahiko nuke.

Zein jarduera egiten dituzue?

Askotarikoak. Gu, Lasarte-Orian Atsotarako egoitzako egoiliarrekin aritzen gara, eurek antolatzen dituzten ekimenetan kolaboratuz. Batzuetan konpainia egitera besterik ez gara joatean, bertako egoiliarrek kontatu edo esan nahi digutena entzutera; baina bestelako jardueretan ere parte hartzen dugu. Musikaz gozatzeko taldetxo bat sortu dugu, adibidez.



Lasarte-Oriako Nagusilanen boluntario gisa lanean ari diren hainbat kideren talde argazkia; lehen ilaran, eskuinean, Encarni. E. BAZTAN

Sei musikari daude, horien artean Jon Lasa. Abesbatza txiki bat ere osatu dugu, egoiliarrekin batera elkarrekin kantuan aritzeko. Niri musika izugarri gustatzen zaizkio eta ipuinak ere kontatzen dizkiet; asmatu egiten

ditut asko, baina tarte atsegin bat pasarazteko sortzen ditut. Beste hainbatetan galdetzen diet hegan egin ahal izango balute nora joango lirakeen, edota animalia bat izango balira zein izan nahiko luketen, hala,

imajinarioa martxan jarri eta ariketa politikak irteten dira. Euren parte hartzea bilatzen dugu. Abesteko ere zein abesti nahi duten galdetzen diegu, eta saiatzen gara, ahal den neurrian gorputza ere mugi dezaten. Nire

buruarekin ere harritzen naiz askotan.

Orain, ostiraletan Froilan Elespe parkera irteten hasi gara urte sasoi honetako eguraldia aprobetxatuz. Bingoan eta kartetan aritzeko saioak ere egiten ditugu... Ondo ibili egitasmoan ere kolaboratzen dugu.

Ekimen berezirik egiten al duzue sanpedroetan?

Ez dugu jarduera berezirik antolatzen, baina txupinazoa ikustera lagundu izan ditugu zaharren egoitzako egoiliarrek hainbat urtez.

Eta zuk, nola bizi dituzu herriko jaiak?

Emakumeen Zentrokoak urtero antolatzen dituen egitasmoetan parte hartzen dut; jaietan eta inauterietan ere bai. Festak oso gustuko ditut, lagunekin elkartu, afaltzera irten eta zarata apur bat egitea ederra da. Nafarra naiz jaiotzaz, festazalea.

Aurten ere ahalik eta gehien gozatzen saiatuko naiz; ahalik eta dantza gehien egin eta abesten. Ez dakit euskaraz, baina euskarazko abesti asko badakizkit.

MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

● IBILGAILUAK

- Motozikletak
- Automobilak
- Autokarabanak
- Furgonetak
- Kamioiak

● MERKATARITZA

- BIZITZA ETA ERRETIROAK
- OSASUNA
- ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK

● ERANTZUNKIZUN ZIBILA

- ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK
- INBERTSIOAK
- PYMEAK...

Ganbo kalea, 1 LASARTE-ORIA - Tel.943-36 22 75 & FAXA: 943-37 24 13

Gora Lasarte-Oria!



INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU
GRAFIKOA

DISEINU
EDITORIALA

aldizkariak
IRUDI KORPORATIBOA
kartelak
ESKU-ORRIAK
katalogoak
AGENDAK EGUTEGIAK
koadernoak
PAPELERIA
liburuak

antza

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA · Tel. 943 370 738 · info@antza.eus · www.antza.eus

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Artxiboko harribitxiak

1993ko urrian sortua izanik, TXINTXARRI-k 1994tik darama herriko festen berri ematen, urtero, hutsik egin gabe. Horren ondorioz, momentu eta oroitzapenez betetako artxiboa osatu du, argazki formatuan. Duela hamabost urteko jaiak ekarri ditugu gogora



Sorgin Dantzako kideak, eta atzean, Okendo plaza, berritu aurretik. TXINTXARRI



Ehunka herritar, txarangari segika, txupina eta gero. TXINTXARRI



Pantxoa eta Peiok eman zuten kontzertuetako bat. TXINTXARRI



Beteranoen danborradako partaideak, Kale Nagusian. TXINTXARRI

LUIS CAR

autobusak

Gora Lasarte-Oria! Gora sanpedroak!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza 1, LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943-36 63 16 • Mugikorra: 629 46 18 97 • luisarbus62@hotmail.com



MULTIOPTICAS JOERA ETA KALITATEA

EZERRI UKO EGITEN EZ DIOZUNEAN, MÓ DA SOILIK

Ez egin uko **diseinuari**
 Ez egin uko **kalitateari**
 Ez egin uko **teknologiari**
 Ez egin uko **modari**

Ez egin uko eduki dezakezunari **DENA prezio ezin hobean**



ORAIN, DENA EDUKITZEA ERRAZAGOA DA:
**ATERA ARGAZKI BAT IRAGARKI HONI,
 ZATOK GURE OPTIKARA ETA LORTU**

50€

arteko deskontua zure
MÓ betaurreko GRADUATUETAN*

*2022/06/30era arte. 500€ edo gehiagoko erosketetan aplikatuko da. Hortik beherakoetan, 20 €-ko deskontua egingo da.

HITZORDUA ESKATU ETA EGIN EZAZU

IKUSMENAREN AZTERKETA PREMIUMA DOAN

Kale Nagusia, 15 **LASARTE-ORIA** Tel.: 943 37 74 55

www.multiopticas.com   

Blusak: herriko jaien adierazle koloretsu eta alaiak

Kuadrillen blusak ere badira sanpedroetako protagonistetako batzuk. Koloretsuak gehienetan eta mahuka luzekoak, batzuetan soinean jantziak eta beste hainbatetan gerrian lotuak, baina Kuadrilla Egunean ez dute hutsik egiten. Horiek nola egin, zein oihal erabili eta bestelako zenbait datu biltzeko Fernandez Ehunak-eko saltzaileekin eta Ione Artola jostunarekin hitz egin dugu

"Pertsona bakoitzeko metro eta erdi oihal koloretsu behar izaten da blusa bat osatzeko"

30 urte baino gehiago igaro dira Fernandez Ehunak dendako jabe Iñaki eta Jose Luis sanpedroetarako blusak egiteko oihalak saltzen hasi zirenetik. Lasarte-Orian aipatu jantziaren erabilera "oso errotuta" dagoela uste dute. Dena den, kontatu dute eurak haurrak zirenean ez zegoela blusak erabiltzeko ohiturari: "Gerora, pixkanaka indarra hartzen joan eta gaur egun, festen adierazle dira.

Oihal "ikusgarri eta koloretsuak" eskatzera joan ohi zaizkie bezeroak, "halakoak" behar dutelako izan.



Fernandez anaiak oihalak eskuetan. TXINTXARRI

Aurten, eskari ugari izan dituztela azpimarratu dute saltzaileek, eta, hori, pandemiaren ondorioz ere gertatu dela uste dute: "Bi urte egon gara herriko festarik egin ezinik, eta aurten, sekulako oihal pila saldu dugu. Jendeak festarako gogo izugarria duela antzematen da".

Eurek baino hobe ez daki inork jantzi bat egiteko zenbait ehun behar den. Zehazki, Fernandez anaiek hala esanda, metro eta erdi oihal behar izaten du pertsona bakoitzak blusa bat egiteko.

Teknologia berrien eragina ere antzeman dute ehun dendan. Kontatu du duela gutxira arte dendara bertara joaten zirela bezeroak oihalak aurrez aurre ikustera, baina, egun, WhatsApp bidez egiten dutela aukeraketa eta erosketa: "Dendara etorrita saltsa ederra sortzen zen, zein oihal aukeratu eztabaidatzen zuten, ederra izaten zen; orain, ordea, erosoagoa bihurtu da metodoa".

Kontatu dute gazteek oihalen kalitateari baino, koloreduna izateari ematen diotela garrantzia.

Ziur aurtengo sanperoetan makina bat blusa sorta berri kaleratuko dituztela lasarteoriarrek; ezagunak izango dituzte gehientsuenak Fernandez anaiek.

"Urteen poderioz indartu egin da herriko jaietan blusak erabiltzearen ohitura"

Kuadrilla blusek "koloretsuak, alaiak", behar dute izan Ione Artolaren iritziz: "Festak alaitasuna dira, gozamina eta blusek horren erakusle behar dute izan, alaiak".

Jostun ari den urte luze hauetan guztietan josi ditu makina bat, bezero bakoitzaren nahi eta gustuen neurria egin ditu beti. Gehientsuenak irekiak izan ohi direla nabarmendu du, %90a, baina eskatu izan dizkiote baita ere erabat itxiak; eskaera horiek azken urteetan nagusitu direla kontatu du.

Mahukak ere izaten dituzte gehienek, baliagarri dira jantzita baino, soinean lotuta eramateko; uda sasoiari ospatzen dira jaiak, eta tenperatura altuei aurre egiteko gerrian lotu ohi dituzte erabiltzaile gehienek. Izaten dira mahukak gainerako blusaren tela ez beste oihal ezberdin batekin egitera animatzen direnak, baina gutxiengoak egiten du horrela: "Ohikoena blusa osoa ehun berarekin osatzea da".

Jantzi horiek osatzeko erabili beharreko oihalen gainean ere galdetu dio aldizkariak jostunari eta modu garbi eta azkarrean erantzun dio: kotoia.

Ziur sanpedroetan herritar batek baino gehiagok luzituko duela Artolak jositako blusarik. Asko sortu ditu Lasarte-Oriako

sanpedroetarako, baina baita beste herriko festetarako ere, santixabeletarako (Usurbilgo Jaiak) esaterako. Aurten, ordea, ezinezko egin zaio lan horietan aritzea beste zeregin batean ari baita buru-belarri. Momentuz ezin dugu informazio gehiegirik aurreratu, baina *spoiler* handirik egin gabe kontatu dezakegu Cristobal Balentziaga moda diseinatzaile ezagunari buruzko telesail baterako jostun lanetan ari dela. Ez da bertan parte hartzen ari den herritar bakarra, baina aurrerago argitaratuko dugu informazio hori.



Ione Artola jostun lasarteoriarra. TXINTXARRI

EPA LASARTE HHI 2022-2023 ikasturtea

MATRIKULA ZABALIK

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza (DBH-ko titulua ziklo ertaina eta gorena egiteko, 4 hilabeteko ikastaroak)**
- **Gaztelania atzeritarrentzat.**
- **EUSKARA (0-1-2 mailak).**



Tel. 943-37 64 43 / 943-36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.eus

Deitu hitzordua eskatzeko!



Blusa + Kuadrilla = Sari ederrak

Formula matematiko bat bilakatu da ia: jarduera garrantzitsu bat non, TXINTXARRI-k antolatutako argazki lehiaketa han. Festa giroko elementu garrantzitsuenetako bi hartu ditugu oinarritzat: blusa, eta jantzi horiek soinean eramaten dituzten pertsonak, kuadrillako kideak. Ariketa erraz bat proposatzen dizuegu: lagunak elkartzen zaretenean eta urteroko argazki jendetsua egiten duzuenean, bidali txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 telefono zenbakira, WhatsApp bidez. Azken eguna uztailaren 10a izango da, igandea. Bozketa epea, hurrengo egunean hasiko da, eta 13an amaitu, asteazkenez.


Bozka gehien jasotzen dituen argazkian azaltzen diren pertsonak sari hau jasoko dute: lagunartean Paintball Donostiara (Zubietan, Iruin sagardotegiaren alboan) joatea. Bigarrenekoek, berriz, Avenida taberna jatetxean hamaiketako eder bat egitea. Parte hartzeko baldintzak hauek dira:

1. Argazkian azaltzen diren pertsona guztiek blusa bera eramatea soinean.
2. 16 urte edo gehiago izatea.
3. Kuadrilla bakoitzak argazki bat bidaltzea, ez gehiago.
4. Gailu bakoitzeko bozka bat besterik ez ematea.

***Oharra: bi sarien kasuan, antolakuntzak hamabost pertsonara arteko prezioa finantzatuko du. Gehiago badira, gainerako kideena kuadrillak berak ordainduko du.**



Jantzi blusa eta atera kuadrillako argazkia, sari ederra izan dezake-eta! TXINTXARRI



*Nahi edo behar
duzun huraxe
aurkituko duzu
gurean!*

Fernández
ehunak

Ondo pasa sanpedroetan!

Kale Nagusia 2 - Tel. 943-36 16 07 - LASARTE-ORIA

muebleszubi@hotmail.com
MZUBI
LASARTE-ORIA

Geltoki Kalea 21 LASARTE-ORIA

Tel.: 943-36 24 67

Ondo pasa San Pedro Jaietan eta gozatu!



txitxardin
BRASA ETA TRADIZIOA

Zatoz sanpedroak gurekin ospatzera!

**ZURE OSPAKIZUNAK BEREZIAK
IZANGO DIRA GURE JATETXEAN**

Ezkontzak | Jaunartzeak | Ospakizunak

CASA HUMADA

Oria Etorbidea, 12 LASARTE-ORIA
943-04 62 97 | 662 06 66 79

info@casahumada.com



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

Ondo pasa San Pedro Jaietan!!

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA / 943-37 17 33 - 610 45 93 45

"Borrokatzen dugu disidenteak ez izateko"

KRIS ALVAREZ ETA TASIO ARRIZABALAGA TRANSMARIBOLLO PLATAFORMA LGBTIQ+ kolektiboaren borroka herrira ekarri eta ageriko egiteko xedez, hilaren 28an manifestazioa egingo dute 'Hemen gaude' lelopean, Okendo plazan, 20:30ean

Maitane Aldanondo

LGBTI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna da ekainaren 28a, eta sanpedroak tarteko, aldarrikapen horrek ez du orain arte lekurik izan herrian. Hutsune hori bete, saretu, eta elkarri babes emateko Transmaribollo plataforma osatu dute oraintsu. Kris Alvarez (Lasarte-Oria, 1979) eta Tasio Arrizabalaga (Lasarte-Oria, 1990) kideekin elkartu da TXINTXARRI Bizi duten egoeraz eta mobilizazioaz haratago dituzten asmoez gehiago jakiteko. Horiek denak (eta gehiago) azaltzeaz gain, mezu argi bat zabaldu dute: konplexuak alde batera utzi, eta aliatu heterosexuak guztiak joan daitezela manifestaziora.

Zergatik erabaki duzue Transmaribollo plataforma sortzea?

KRIS ALVAREZ: Ekainak 28aren harira sortu da. Deszentralizatu eta herrira ekarri nahi dugu manifestazioa, Lasarte-Orian ere bagaudela adierazi. Borroka hona ekarri, agerikoago egiteko. **TASIO ARRIZABALAGA:** Deialdia Donostian egiten denean herritik beti hara joaten gara eta inbisibilizazio bat ematen da. Egun nahiko garrantzitsu bat da herrian, beti da festen hasiera, eta diluitu bezala egiten da. Horregatik, inportantea iruditzen zaigu protagonismoa hartzea eta aldarrikatzea hemen gaudela.

Alegia, Lasarte-Orian ere bazaudetela ikustarazi nahi duzue. Horregatik, Hemen gaude leloa?

T.A.: Ikusezintasunari aurre egin eta hori da mahai gainean jarri nahi duguna: herriko bollerak marikak, transak eta queer-ak hemen gaudela. Aurpegiak dauzkagula, izen-abizenak, hemen bizi eta lan egiten dugula, eta gure bizitzak hemen bizi nahi ditugula. Eta gurekin batera badaudela beste hainbat pertsona bide horretan gure aliatuak direnak, eta elkarrekin eraldaketa posible egin nahi dugula.

Borroka jarriko duzue erdigunean.

T.A.: Ez dugu nahi *Orgulloaren* martxa bat bere horretan, hau da, ospakizun bat, festa bat, inolako eduki politikorik gabe. Ez dugu *Orgullo* arrosa bat nahi. Ekainaren 28an zerbait zehatza ospatzen da: orain dela 50 urte baino gehiago New Yorken trans arrazializatuak poliziaren kontra oldartu zirela ezin zutelako gehiago. Guk nolabait esan nahi dugu hemen gaudela, borroka horretaz eta gure aurretik



Tasio Arrizabalaga eta Kris Alvarez plataformako kideek manifestazioan parte hartzera deitu dituzte herritarrak. TXINTXARRI

borroka egin duten guzti horietaz harro eta borrokan jarraitzeko prest gure ondorengoentzat ere. **Zein da egoera herrian?**

T.A.: Ez dugu sekula eduki berariazko mugimendu antolatuz herrian. Gure bokazioa oraingo txikia da, gure buruari ez diogu jarri nahi inoren ordezkari, baina iruditu zaigu badela momentua aurrera pauso bat emateko, gure buruaren aurpegia jartzeko eta esateko: "Gu gara, hemen gaude".

K.A.: Atzetik gatoz, lehen ez zen hain bisiblea, denborarekin gero eta gehiago garelako uste dut. Elkartu garenak adin aldetik antizak gara, 20 eta 58 urte artean,

belaunaldi desberdinak, eta horrek poza ematen du.

LGBTIQ+ fobia agerikoagoa al da?

K.A.: Eskuin muturraren eraso diskurtso hori askoz indartsuago entzuten da eta ematen du askatasun gehiagorekin eraso dezaketela.

T.A.: Ez dakit hazi den edo lehen ezkutuan zegoen, diskurtsoa polarizatuago dagoela esango

"HELBURUEKIN BAT EGITEN DUEN ORO DEITZEN DUGU GURE BORROKARA BATU ETA PARTE HARTZERA"

nuke. Ebidentzia bat dena da LGBT pertsonok jasaten ditugun erasoak, mehatxuak, irainak... edo horien salaketak hirukoitzen ari direla; lehenago akaso salatzen ez zelako. Eta gainera, ikusten ari gara berez aliatuak beharko luketen beste hainbat pertsona, bere burua feministatzat daukatena, bide horretan lagundu beharrean harri txintxarrak jartzen dabilzala. Gorrotoa mahai-gaineratuta, erasoak bereziki modu bortitz batean pairatzen dituztenak transak dira. Horri guztiari aurre egiteko momentua da. Horrelako diskurtsoek ez daukate kabadarik gure herrian, Sorgin Jaietan,

ezta sanpedroetan ere. Horretarako antolatu gara eta gatoz festetara.

Plataforma kolektiboaren saretze eta babes gune izatea ere nahi duzue.

T.A.: Elkartzeko bokazioa hori zen. Herriko transmaribolloek ez dugu espaziorik partekatzen, ez daukagu sarerik. Batu garen taldetxo horretatik haratago egon daitezkeen pertsonak etortzeko eta gure artean ezagutzeko espazio bat.

K.A.: Herriko transmaribollo orok ateak zabalik ditu.

Jarrera neutrala utzi eta zuen ekintzetan parte hartzera deitu dituzte lasarteoriarrak.

T.A.: Guretzat oso garrantzitsua da aldarrikatzea borroka hau ez dela gure borroka bakarrik. Gu borrokan ari gara herriko transmaribolloen eskubideen defentsan, baina hori bat dator emakumeen eskubideen defentsarekin, langileenarekin, pertsona arrazializatuenaekin... Gizarte hobe bat eta bizitza bizigarriagoak eraiki nahi ditugun pertsonen eskubideen defentsarekin bat dator.

K.A.: Nahiz eta bere burua transmaribollo bezala ez identifikatu, helburu horiekin bat egiten duen oro deitzen dugu gure borrokara batu eta parte hartzera. Batzuetan badirudi ez naizela eta ez doala nirekin, baina denok daukagu LGBT lagunak, senideak edo lankideak. **Nola egin aurre neutraltasunari?**

T.A.: Kontzientzia lan bat eginez eta zalantzan jarriz heteroa, heteroaraua edo heterotasuna dela posizio normatiboa, legitimoa, normala eta gainerakoak garelako disidenteak. Gaur egun disidenteak gara, tamalez; harro gaude gure disidentziak eta hortik egiten ditugu aldarrikapenak, baina borrokatzen dugu disidenteak ez izateko. Sexu-genero identitatea eta norekin oheratu nahi dugun ez izateko diskriminaziorako elementu bat.

K.A.: Gure sexu joera ez epaitzea.

Ekainak 28tik aurrera zer asmo duzue?

K.A.: Duela bi hilabete-edo elkartu ginen egun horri begira, nahiz eta beste helburu batzuk ere baditugun. Ilusio handiarekin bildu gara, uste dut gauza politikak egiten ari garela eta bagoazela aurrera. Oraingo helburua hori da, ea nola ateratzen den; baina aurrera begirako zerbait ere bada, ikusiko dugu ze dinamika jarraitu edo ze jardura egin.

"Ekipo eder bat dabil nirekin. Saria guztiona da ezinbestean"

Nerea Eizagirre

Hilaren 21ean, Victoria Eugenia Antzokian, Joseba Tapia (Lasarte-Oria, 1964) musikagileak Adarra Saria jaso du. Donostia Kulturak bere ibilbide luzea, bere moldakortasuna edo herri-musikaren ondarea kontserbatu eta zabaldu izana aitortu nahi izan dio. Harekin bildu gara eta, besteak beste, *Egon edo ez egon* azken diskoaren gainean hitz egin dugu.

Zer suposatzen du zuretzat Adarra Saria jasotzeak?

Lehenik, oso jende garrantzitsua saritu dute. Beraz, talde horretan egotea ohore handia da.

Eta bigarrenik, ikusgarritasun falta dugunez, horrelako gauzak pozik egotekoak dira, berriro ere, ikusgarri egiten zaituztelako.

Ibilbide luzea egin duzu. Nola izan ziren zure hastapenak trikitiarekin?

7 urterekin fandango bat atera nuen eta denak pentsatu zuten: "Ostras, hau musikaria dator!".

Ni trikiti zale nintzen adin horretan. Nire bi osabak trikitilariak ziren eta nik hori nahi nuen. Baina trikitiari ez zuen fama ona. Kromatikoa zen fama ona zeukana gure osabentzat eta orduan, ni kromatikoa ikastera sartu ninduten. Hasieran pixka bat tortura izan zen, baina gero sartu nintzen mundu horretan. Hala ere, beti izan nuen trikitirako joera. 14 urterekin, nerabezaroan, aitak amore eman behar izan zuen eta trikitiarekin hasi nintzen. Ezin ninduen frenatu gehiago. **Eta hortik erromerietara egin zenuen...**

Ez. Ikastolako lehen belaunaldikoa naiz ni eta festa guztietan jotzen nuen. Lehen filarmonika. Jaialdi bat ere antolatu genuen eta herriz herri ibiltzen ginen. Dantza taldeak zeuden herrian eta ni mundu horretatik atera nintzen. Agertokia ongi ezagutzen nuen.

Osabarekin egin nuen urtebete eta gogoratzen dut Igeldon Balda izeneko trikitilari baten omenaldian egin nuela nire debuta. Bi urteren ostean, egingo nuen nik plazarako bidea. Beraz, 16 urterekin edo 17rekin, ni plazan nenbilen erromeriak egiten.

Xabier Berasaluze Leturia-rekin bat egin eta erromeriako doinu zaharrak jotzetik berriak sortzera egin zenuen jautzia. Trikitiaren mundua eraldatu zenuen.

Aipatu moduan, lehen trikitia ez zegoen ongi kontsideratua. Baina aldaketa handia egon zen. Franco hil eta ondorengo urteetan

JOSEBA TAPIA MUSIKARIA

Herritarrek Adarra Saria 2022 saria jaso berri du Victoria Eugenia antzokian, Donostian. Abenduan aurkeztutako, 'Egon edo ez egon' azken diskoaren birari hasiera emango dio orain



Joseba Tapia herritarra emanaldi batean trikitia jotzen. GAIKZA PEÑAFIEL

halako berpizte bat izan zuen euskal kulturak, ikastolak... hor trikitia interesgarria bihurtu zen, nolabait esateko. Euskal sinbolo bezala ikusi zutela esan daiteke eta gu hor erdian topatu ginen.

Ez hori bakarrik! Bat-batean mundu txiki batetik oso mundu handira pasatu ginen. Aldaketa asko izan zen urte horietan, komertzioa, frankofoniatik anglosaxoira pasatua ginen kulturaren. Hor hasi ziren esango genuke komertzio basatiaren lehen urratsak. Eta gu hor bete-betean.

Diskografikoki ere trikitia sartzen hasi zen. Oso gutxi zegoen diskoetan eta guri, Kepa Junkera eta beste batzuekin batera, trikitiaren munduaren berpizkundea egitea egokitu zitzaigun.

Gainera, gu ez ginen baserri mundukoak, gu kalekoak gara. Ni Lasartekoa naiz, kalekoa. Beraz, gure influentziak ere ez zeuden hain lotuak landa mundura. Rock eta mundu modernora lotuak zeuden. Ezinbestean gure sorkuntzek diferentzia markatu zuten, hasieran ez zen ongi onartua izan, baina denbora tarte txikian

izan zen hori. Esan behar da oso ongi hartu gaituztela bai landa munduan eta bai bestelakoan.

Baserri munduan gauzak estatikoagoak ziren, baina guk ez genituen lotura horiek. Guk oro har garaiko musikarekin, rockarekin oso hartu-eman handia izan genuen nerabezaroan. Landa munduarentzat rock mundua zen eraso edo etsai. Horregatik, batzuentzat oso puskatzailea izan zen gurea. Guk gure barruan ez genituen gauzak horrela sentitzen. Baina ibilbide horretan guri titulu hori jarri ziguten eta horrekin geratu gara.

Zure bakarkako ibilbidean esperimendua izan da nagusi.

Jende askok trikitiaren munduarekin lotzen nau bakarrik, baina beste musikek ere erakartzen naute. Eta beldur eta lotsarik gabe haietara egiten dut salto.

Gero testuak musikatzerako garaian libreago ibiltzen naiz. Testuari dagokion mundu sonoro bat sortu eta egokitu. Zenbat eta erregistro gehiago eduki hobea. Dena den ez da matematikoa eta intuizioak agintzen du azkenean. **Eta instrumentu ezberdinak ere jo dituzu edo erabili dituzu.**

Bai, hori da. Instrumentu gehiago erabili ditut, ez nik jota beti, musikari ezberdinekin egin dut lan. Musikari onekin ibiliz gero gero norbera ere maitemindu egiten da eta ausartu. Baina ez dugu denerako balio eta horregatik laguntza eskatzen

diet. Azkenean lan kolektiboa da gurea. Denen artean janzen dugu kantua. Horrek azken emaitza oraindik ederrago bihurtzen du.

Bestelako lanak ere egin dituzu urte hauetan guztietan. Esate baterako, Islada Ezkutatuak taldearekin bat egin duzu euren aurkezpenetan.

Hor lana beraiek egin dute. Baina lotura zuzena zegoen nire diskografiarekin eta euren lanarekin. Lagunak ditut txikitatik eta konexio handia dago.

Gauza gehiago egin beharko nituzke. Usurbilera joan nintzen bizitzera. Baina lotura dut oraindik. Beti izango naiz Lasartekoa.

Azken diskoa *Egon ala ez egon* abenduan aurkeztu zenuen Durangoko azokan, baina oraindik ez duzue egin aurkezpen ofizialik. Ekainaren 21ekoa izan da hori?

Bai, bitartean eman ditugu kontzertu batzuk proba modura. Arrankea orain egin dugu Victoria Eugenia antzokian Adarra saria dela eta. **Azken diskoa talde lana diozu...**

Bai, halaxe da. Nik gauzatxo batzuk egiten ditut, baina dena ez. Ekipo eder bat dabil nirekin eta eskerrak haiei. Saria guztiona da ezinbestean.

Nik ideia bat ematen dut, gauza batzuk idazten ditut, baina hori gero praktikara eramaten sorkuntza lan handia egoten da. **Bederatzi disko grabatu dituzu bakarka, eta geratzen direnak, ezta?**

Bai, hori da. Eta Leturiarekin ere beste bederatzi dira. Asko dira. Nire kuadrilakoek esaten zuten: "zer, beste disko bat?". Argi! Edade hoberenean nago. **Hurrengoan lanean egongo zara dagoeneko.**

Bai, horrela da. Diskoa grabatu genuenetik hilabete batzuk pasa dira eta zuk bitartean lanean jarraitzen duzu. Tartean zuzenekoak, aurkezpenak, etab. dituzu, baina zure burua lanean ari da. Eta gainera, horretara jarriak gaude, hori da gure lanbidea.

Denbora behar da disko batetik bestera. Sorkuntza, moldaketak, ekoizpena, promozioa... luze jotzen du.

Baina azken diskoaren bira hasiko duzue orain, noiz etorriko zara Lasarte-Oriara? Oraindik ez dugu datarik Lasarte-Orian, baina Lasarten aurkeztu nahiko nuke, nire disko gehienak hemen aurkeztu ditut.



Udal ordezkariak kanpainan banatuko diren edalontziak eskutan dituztela. TXINTXARRI

Udalak San Pedro Jaiak garbiak izateko kanpaina du abian

Edalontzi berrerabilgarriak banatu, edukiontzi gehiago jarri, eta garbiketa zerbitzua indartuko du udalak

Txintxarri

San Pedro Jaiak jai garbiak izan daitezten Lasarte-Oriako Udalak FCC enpresarekin batera *Guztion Kontua da San Pedro Jaiak 2022* kanpaina sustatuko du. "Festak datoz eta horiek elkar errespetatuz aurrera eramán ahal direla kontzientziatu nahi dugu, bai herritarren artean baita garbitasunari dagokionez ere", adierazi du David Mateosek.

Jarduera ezberdinak eramango dira aurrera kanpaina horretan. Askatasuna parkean hilaren 27ra arte karpa bat ezarri du udalak, egitasmoaren nondik norakoak azaltzeko. Horrez gain, "lurrean beira puskatuak ekidin eta hondakinak murrizte aldera", edalontzi berrerabilgarriak banatuko dituzte. Ordutegia 11:00etatik 14:00etara eta 14:30etik 17:30era izango da. Gainera, basoek *Jaiak errespetuz gozatu!* leloa daramate. Irudi horren bidez, udalak jaietan zehar egingo den kanpaina horri ere ikusgarritasuna eman nahi dio.

Hori gutxi balitz, jaietako hainbat gunetan –Okendo plaza, Oriarte Landaberri BHIko patioko gazte gunea eta Andatza plaza– beira eta plastikoa biltzeko edukiontziak eta komun publikoak jarriko direla jakitera eman dute.

Eta garbiketa zerbitzua ere indartuko dela nabarmendu du alkateak: "Jaietan egin ohi moduan garbiketa zerbitzua indartuko da eta lan egunetan, esate baterako, Kale Nagusia goizeko seitan hasiko dira garbitzen gero errepidea ireki ahal izateko".

Lasarte-Oriako bizilagunek ekimenaren berri ematen duen esku orria jasoko dute etxean datozen egunetan.

Azkenik, urtean zehar herritarrek dituzten ohiturak jaietan ere mantentzeko deia egin dute udal arduradunek. "Lurrean beira puskatua egotea ez da atsegina, ezta kalean pixa egotea ere. Jaietan ere kaleak garbi mantendu behar direla kontzientziatu behar gara".



Udal ordezkari eta GizarteZerbitzuetako teknikariak kanpainaren aurkezpenean. TXINTXARRI

Jaiak errespetuz gozatzeko kanpaina

Eraso matxista eta LGBTifobikorik gabeko sanpedroak helburu, sentsibilizazio kanpaina aurkeztu du udalak. Espainiako Gobernuaren dirulaguntza jaso du aurten, 19.000 eurokoa, eta ekarpen horri esker jokaera protokolo bat osatu ahal izan du

Txintxarri

Agustin Valdivia alkateak, Gizarte Zerbitzuetako batzordeburu Lourdes Acevedok, Emakumeen Zentroko koordinatzaile Maite Iglesiasak eta Gizarte Zerbitzuetako teknikari Sonia Zubizarretak aurtengo kanpainan egingo diren ekimenen berri eman dute.

Dagoeneko hasiak dira *Jaiak errespetuz gozatu!* leloa daramaten banderaxoak zintzilikatzen kale argietan. Uztailaren 4ra arte mantenduko dituzte jarrita. Halaber, aurtengo jaiari begira osatu duten jokabide

protokoloa ere banatzen ari dira herriko tabernetan (txoznara ere eramango dute). Horrekin batera, banderaxoen lelo bera duten ezpazapiak ere emango dizkiete. Hilaren 24ra arte arituko dira lan horietan.

Hilaren 25ean, berriz, *Errespetuz jokatu* lelopean zunba maratonia egingo dute. Okendo plazan izango da, eta hiru orduko iraupena izango du: 10:00etatik 13:00etara.

Bi egun geroagorako, hilaren 27rako Emagin elkarteak autodefentsa feminista tailer bat egingo duela iragarri dute.

16:00etan hasi eta 21:00etan amaituko da eta Mercero gunean izango da.

Jaietako lehen egunean, berriz, hilaren 28an, LGBTBI Komunitatearen Nazioarteko Egunean *Ezetz da ezetz* autodefentsa kitak banatuko dituzte. Goizez zein arratsaldez jaso ahal izango dira aipatu sorta horiek Okendon. Egun berean, haurren zein helduen txupinazioan *Jaiak errespetuz gozatu* leloa duten puzgarriak botako dituzte udaletxeko balkoitik. Uztailaren 1ean eta 2an, 00:00etatik 03:00etara Sexu bizi furgonetara kontsultak

ANTONIO URRUZOLA

Ondo pasa festetan!

ZURGINTZA eta EBANISTERIA

Etor zaitez erakusketa ikustera!

Asteasuain poligonoa, 3. pabilioia USURBIL

Tel./Faxa: 943-37 64 15 Mugikorra: 687 84 55 99

www.carpinteriaantoniourruzola.com

COPILASARTE

COPISTERIA - PAPELERIA

FOTOKOPIAK TXURI BELTZEAN ETA KOLORE DIGITALA

- Koadernaketak
- Plastifikatuak
- Bulegoko materiala
- Material informatikoa

Ploterra, eskanerra eta planoen kopiak

Ondo pasa festak!

Kale Nagusia, 34 beheia 1 • Lasarte-Oria

Tel.: 943-36 69 30 - Faxe: 943-36 69 31 | copilasarte@gmail.com

Ondo pasa festetan!

AZPEITIA

Blas de Lezo, 1
20160 LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 18 70
Fax: 943-36 21 79
mueblesazpeitia@gmail.com
www.mueblesazpeitia.com

egitera edota informazioa jasotzera joateko aukera izango dute herritarrek.

Protokoloa ere prest

Gerta daitezkeen eraso matxista edo LGTBI fobikoen aurrean herritarrek nola jokatu jakiteko jarraibide batzuk zehaztu ditu udalak. Adierazi du gisa horretako erasoan aurkako borroka "guztion ardura" dela. Horrela, errespetuan, berdintasunean eta autonomian oinarritutako jarrerak bultzatzeko helburuarekin, honako protokoloa osatu du, eta hura jarraitzera gonbidatu ditu herritarrek:

- Argiak piztu.
- Musika itzali.
- Eraso tzailea edo erasotzaileak lokaletik kanporatu.
- Erasotua izan denari laguntza eskaini.
- Min fisiko edota psikologikoa salatzeke 112 telefonora deitu, edo Hernaniko ertzain etxera (943-53 88 40).
- Errekurtso eta telefono baliagarriak eskaini:
 - 24 orduko telefono bidezko laguntza: 900-84 01 11/016.
 - Lasarte-Oriako udaltzaingoa: 943-36 24 42.
 - Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzuak: 943-37 61 79.
 - Lasarte-Oriako Emakumeen Zentroa: 943-36 39 58.

Honako gomendio hauek ere eman dituzte: emandako kartela leku ikusgarri batean kokatzea; emandako ahozapiak erabilgarri jartzea; eta eduki matxista eta LGTBI fobiko musika, bideoak, jarrerak eta hizkuntza darabiltenak saihestea.



Urteak daramatzate jaietan ere autodefentsa feministaren beharra aldarrikatzen. TXINTXARRI

Eraso matxistei aurre egiteko protokolo bat ondu dute

Sorgin Jaiak-ek eta aSUnak talde feministak landu dute. "Kaleak eta gauak espazio askeak direla aldarrikatuko dugu"

Txintxarri

Hilaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko ditu herriak festa alternatiboak. Horren harira, eraso matxistei aurre egiteko protokolo bat egin dute aSUnak neska* gazteen taldeak eta Sorgin Jaiak-ek berak. Idatzi bat bidali dute TXINTXARRI-ren erredakziora, horren berri emateko.

Herriko kaleak "kolorez eta bizipozez" beteko direla adierazi dute, iristear direlako jai alternatiboak. Hala ere, zehaztu dute dena ez dela algara izaten: "Argi ikus daiteke, aisialdi espazioak berriro ireki direnetik, Euskal Herrian ere emakume, trans, bollera eta mariken aurkako erasoak ugaritu egin direla". Bi eragileen aburuz, gertaera horiek ez dira isolatuak. "Menderatu, bortxatu eta isilduak nahi gaituen sistema zisheteropatriarkalaren isla gordina dira". Horren aurrean,

"urtero" egin izan duten bezala, jarraibide sorta bat prestatu dute, txosnen gunea espazio "seguru, anitz eta feminista" izan dadin. "Denok dugu hori zaintzeko ardura, ez soilik emakumeok". Gauzak horrela, eraso bat jasan edo ikusi duen edonori babesa eta laguntza emate aldera, puntu morera bertaratu ahalko dute. Bidean, 722 27 63 67 telefono zenbakia ere martxan jarriko dute.

Espazio askeak aldarrikatu

"Kaleak eta gauak espazio askeak direla aldarrikatu dugu", esan dute bi eragileek. "Beldurrik gabe bizi eta gozatzeko eskubidea dugula irmoki adierazten dugu". Erasoan aurrean erabiliko duten arma autodefentsa feminista izango dela azpimarratu dute, eta "saretzen, elkar zaintzen eta babesten" jarraituko dutela.

ESKUTITZA

LASARTE-ORIAKO MUGIMENDU FEMINISTA

Lasarte-Oriako herritarrei berdintasun teknikariaren auziari buruz helarazi nahi diegun gogoeta:

Beste ezer baina lehen argi utzi nahi dugu gatazka hau ez dela udaletzeko langile berriaren eta ezta lanez gainezka dabiltzan beste ezein gizarte langileekin dugun gatazka, ez da haien ardura, noski. Udaletxearen eta udaletzeko ordezkari publikoaren kudeaketa eskasaren ondorio da herrian bizi dugun egoera.

Dakizuen bezala denbora daramagu udaletxeari bere betebeharrak behar bezala burutu ditzen eskatzen. Aitzakia, gezur eta manipulazio artean, heldu da langile berria.

Oraingoan, zehazki, alkateari zuzenean egindako eskaeraren erantzunak haserretu gaitu: gaiari buruz hitz egiteko bilera bat eskatu diogu, eta izandako erantzunarekin argi eta garbi utzi dute, beste behin ere, daukaten jarrera: ez digu bilerarik eman eta kontraesanez eta gezurrez betetako gutun bat jaso dugu erantzuntzat. Oso larria iruditu zaigu, batez ere, berdintasunaren alde erakunde publikoaren eta herriko beste eragileen artean elkarlana ezinbestekoa dela behin eta berriro errepikatzen ari direlako. Gezurtizat eta tuntuat hartu gaituzte. Segidan aletuko ditugu gure eskaerak, eta jasotako erantzuna.

Guk udaleko egituraren berdintasun teknikari lanpostua sortzea eskatu genuen. Eta, haiek, kontrara, guri bidalitako gutunean argi azaltzen dutenez, gizarte langile baten postua berdintasun masterra duen pertsona batekin bete nahi dute. Hiru urtez bakarrik, gainera.

Bestalde, II. Berdintasun Plana edukiz nahikoa mardula ez dela iritzita, hori berregiteko diru partida bat jasotzea eskatu dugu. Haien erantzuna kontraesankorra da. Garai batean, aldizkari honetan bertan onartu zuten gabeziak zituela txostenak [maiatzaren 11ko TXINTXARRI-n]. Orain jaso dugun gutunean hitz hitz diote "jauzi kualitatibo eta kuantitatibo garrantzitsua egiten duela" planak.

Amaitzeko, erabakitzeke ahalmena izango duen elkarlanerako organo bat sortzeko eskatu genuen. Gutunean diote elkarlanerako prestutasuna badutela, baina era berean II. Berdintasun Planerako ez direla gurekin harremanetan jarri "eratuta ez gaudelako". Honek ere zalantza sortu digu, izan ere, gure taldea osatzen duten hainbat eragilerekin harremanetan jarri izan dira, besteak beste festetako protokoloa eratzeko edota martxoaren 8ko edo azaroaren 25eko egitaraua prestatzeko. Baldintzak eman badira, halakoetan parte hartu izan dugula gogorarazi nahi dugu, beraz, oinarria ona balitz, elkarlanerako prest geundekeela azpimarratu nahi dugu.

Edonola ere auzi berean kateatuta denbora luzea daramagula iruditzen zaigu, eta oinarritzko eskaerak ere betetzen ez direla kontuan hartuta, Arartekora eta Emakundera jo dugu legeak udalari ezartzen dizkion eginbeharrak bete ditzen eskatzeko.

Denborak aurrera jarraitzen du, eta egoera zaurgarrian dauden pertsonen bizitzak jokoan segitzen dute. Udalak erantzukizuna dauka, eta beregain ez hartzea indarkeria matxista instituzionala da.

**%30eko
DESKONTUA**
eguzkitako
betaurrekoetan



IRIGOYEN

OPTIKA

Ondo pasa eta gozatu festak!



Largoenea 1, Lasarte-Oria - Tel. 943-37 10 47

Motorrak bero, aurrekariekin

Ate joka ditugu sanpedroak. Beharbada, herriko festen atarian, indarrak gordetzeko hautua egingo lukete beste udalerrri batzuetan, baina Lasarte-Oria ez da horrelakoa, inondik ere! Eragile eta talde ugari makina bat aurrekari egin dituzte, giroa eta motorrak berotzeko



'Anarkia Relacional' antzezlanaren uneetako bat. TXINTXARRI



Hilaren 17tik 19ra rallya egin zuen Scooter Club Euskadik. Txalapartariak harrera egin zieten gidariei, txangoa egin aurretik. TXINTXARRI



Sagardotegi kaleko lokal berria inauguratu du EH Bilduk berriki. TXINTXARRI



Erketz EDTk ikasturte amaierako emanaldia egin zuen hilaren 18an, Okendo plazan. Gaztetxoenetatik hasi eta helduenetaraino, ederki aritu ziren denak. Amaieran, taldekide Ainara Aduriz omendu zuten; 25 urte daramatza Erketzen. TXINTXARRI



Moxoseko San Ignacio Musika Eskolako taldeak bere azken diskoa, 'Majara'Iwa', aurkeztu du, Manuel Lekuona Kultur Etxean egindako emanaldian. TXINTXARRI



Ondo ospatu San Pedro Jaiak eta disfrutatatu!

ZUBIETA MOTOR

- Mekanika eta karrozeria konponketak
- Auto erdiberri, erabili eta 0KM salmenta



Oria Etorbidea, 4 6. lokala - LASARTE-ORIA - Tel: 943-36 00 09 - Faxa: 943 37 26 89 - zubietamotor@centrauto.es



Lasarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) sailek denboraldi amaierako erakustaldiak egin dituzte, adibidez, gimnastikakoak. Hilaren 19an Atxegan bazkaldu eta sariak banatu zituzten. TXINTXARRI



Ekitaldi gehiago

Herriko hainbat eragilek jarduerak egiten segiko dute hilaren 28ra arte.

- **Hilak 25, larunbata, 10:00etan:** Zunba maratoia, Emakumeen Zentroak antolatuta, Okendo plazan.
- **Hilak 25, larunbata, 19:30ean:** Alboka abesbatzaren kurtso amaierako emanaldia.
- **Hilak 26, igandea, 09:00etan:** Ostadar SKTk antolatutako bola eta toka jaurtialdiak, Michelingo bolatokian.
- **Hilak 26, igandea, 09:00etan:** LOTME elkarteak antolatutako Familien I. Mendi Ibilaldia. Andatzara joango dira.
- **Hilak 26, igandea, 13:00etan:** Zero Sette Akordeoi Orkestrak kontzertua emango du, Okendo plazan.
- **Hilak 27, astelehena, 18:00etan:** sari banaketa Biyak Bat egoitzan.



Gimnastika erakustaldia egin dute Biyak Bateko kideek. TXINTXARRI



Ilunabar literarioa egin dute Ttakunenea elkarteak. TXINTXARRI



Udal Musika Eskolako ikasle bat, zeharkako flauta jotzen. TXINTXARRI



Javi Olaizola izan da V. Jose Martija txapelketako omendua. Eskuinean, Beasain eta Racing de Santander taldeen arteko partida. TXINTXARRI



Alboka abesbatzak emanaldia egin zuen Irunen, Nayade abesbatzak gonbidatuta. TXINTXARRI

pikabea
ASEGURU ARTEKARITZA

**Seguro mota guztiak.
Eskatu aurrekontua!**

San Pedro zoriotsuak opa dizuegu!

Uzturre Plaza, 8
Lasarte-Oria
Tel.: 943-37 11 18
pikabea@pikabeaaseguruak.com

GIZONEZKO ILEAPAINDEGIA

Ana

PELUQUERIA DE CABALLEROS

✓ Higienea bermatua

HITZORDUA HARTU!
943-84 19 72
672 71 72 06

Ondo pasa festak!

Kale Nagusia, 2 Lasarte-Oria

SUGATE SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma-armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

Ondo pasa festak!

Pintore kalea, 5 Lasarte-Oria | Tel: 943-36 14 71 | www.sugatecocinas.com

KOMIKIA



HAUXE BAI JENEROAI!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n. Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

Jaio da!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 24	GIL	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 25	GANDARIAS-URIBE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 26	GANDARIAS-URIBE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 27	ACHA-ORBEA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 28	URBISTONDO	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 29	DE ORUE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 30	GANDARIAS-URIBE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
OSTIRALA, 1	DE MIGUEL	GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21
LARUNBATA, 2	DE ORUE	
IGANDEA, 3	DE ORUE	
ASTELEHENA, 4	GIL	
ASTEARTEA, 5	LASA	
AZTEAZKENA, 6	ACHA-ORBEA	
OSTEGUNA, 7	URBISTONDO	

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 24

Min. **16°** Max. **19°**

Larunbata, 25

Min. **15°** Max. **18°**

Igandea, 26

Min. **14°** Max. **17°**

Astelehena, 27

Min. **15°** Max. **17°**

Asteartea, 28

Min. **14°** Max. **22°**

Asteazkena, 29

Min. **16°** Max. **22°**

Osteguna, 30

Min. **17°** Max. **21°**

Ostirala, 1

Min. **17°** Max. **20°**

Larunbata, 2

Min. **17°** Max. **22°**

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERRI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

2	4					5	
		6	2	7			
			4	3		2	
4		2	7		3		
			9			8	2
		3	2				
	5		3		2		7
		1	4	7			
9			8	5		1	

OHARRA

Tourreko porra egiteko egunak

Ostadarreko txirrindularitza porra egiten duten herritarrek adi egon beharko dute hurrengo egunetan; uztaillaren 1ean, Le Tour de France txirrindularitza itzulua hasiko da Kopenhage, Danimarkan.

Ostadar SKTk egun batzuk lehenago ohiko tabernetan porra egiteko zerrendak eta boletok banatuko ditu eta webgunean ere egiteko aukera abiaraziko du. Uztaillaren 2ra arte bete ahalko dira txartelak.

Sariei dagokionez, lehen sailkatuak 400 euro irabaziko ditu eta bigarrenak, berriz, 200 euro; etapako irabazleak 65 euro lortuko ditu eta sei urdaiazpiko ere zozkatuko dituzte. Gogoratu lau porren sari nagusian puntuak gehitzeko Euskal Herriko itzuliko zein Giroko porretan erabilitako izen bera jarri behar dela txartelatan. Gehienez, hamar txartel egin daitezke izen berdinarekin probako.

Zabaletako jaietako errifa sariduna

Zabaleta Auzolan elkarteak jakinarazi du 5.721. zenbakidun errifa izan dela sariduna. Hortaz, irabazleak lau afari irabazi ditu, Txitxardin jatetxean. Zenbaki hauetako batera deituta jarri behar du harremanetan antolatzaileekin: 627 00 92 13 edo 687 45 23 13.

Heriotzen berri eman

Inguruko norbaiten heriotzaren berri TXINTXARRI-n eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren izen-abizenak eta heriotza data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldaria eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukaturako genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

ERRENTAN EMAN

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratutun apartamentua alokagai. 60 metro karratutun lorategia du, bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Ekainetik irailera alokagai, hamabostaldika. Nahizanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 666 88 0917.

PARTEKATU

Neska langile bat naiz eta etxebizitza osatzeko beste bi neska arduratsu eta garbiren bila nabil. Etxea argitsua, handia da eta gela guztiak kanpo aldera

ematen dute. Herri erdian dago, topo eta autobus geltokitik oso gertu. Harremanetarako zenbakia: 666 32 05 20.

LANA

ESKAINITZA

Irailean irekiko dugun taberna baterako sukaldari bila gabilta. Interesa baduzu idatzi hona: arimataldeasi@gmail.com.

15 urteko neska bati euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Harremanetarako zenbakia, 631 57 15 40 (Arratsaldez deitu).

ESKARIA

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Prest nago adineko pertsonak orduka zaintzeko edo tabernari zein sukaldari gisa aritzeko. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41.

Garbitzaile lanak egiteko prest nago, orduka. Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

BESTELAKOAK

JANTZIAK


Sorgin Dantzan aritzeko alkandora baten bila nabil, 12-14 urtekoen taila duen gazte batentzat, erosteko edo bueltan itzultzeko. Harremanetarako zenbakia, 670 82 28 02.

HEZKUNTZA

Udan haurrak zaintzeko edo errefortzu eskolak emateko prest dagoen gazte euskaldun bat naiz, Lehen Hezkuntzan eta Pedagogian graduatua eta 2-12 urteko haurrekin esperientziaduna, irakasle zein aisialdiko hezitzaile modura. Harremanetarako zenbakia, 634 21 43 61. Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko errefortzu saio partikularrak eskaintzen ditut, DBH eta Babxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zenbakia, 697 45 97 96.

ESKELA



ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Nerea Segura, Lierni Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide
Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola,
Egoitz Epelde, Jose Lanchas
eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Jai giroaren berri, sareetan ere bai

Paperezko aldizkarietan ez ezik, atari digitalean ere sanpedroen eta Sorgin Jaien jarraipena egingo du TXINTXARRI-k, edo hobe esanda, egiten ari da, honezkero hainbat eduki bildu baititu webgunean sortu duen kanal berezi batean. Bertan izango dituzue albiste, elkarrizketa, erreportaje, agendako hitzordu, argazki eta bideoak



Kanal berezi bat sortu du TXINTXARRI-k, festei buruzko eduki guztiak biltzeko. TXINTXARRI

Txintxarri

Postontzietan jasoko dituzuen aldizkari berezien bitartez ez ezik, sakelako telefono, tablet edo ordenagailuen bidez ere jaso ahalko duzue herriko festen berri. Azken urteetan egin bezala, TXINTXARRI-k atal propio bat sortu du www.txintxarri.eus webgunearen barruan, jaiei buruzko eduki guztiak bertan jaso eta irakurleek eskura izateko. Horretarako, alboan dagoen QR kodea eskaneatzea da bide errazena.


Jaietako kanal berezia



HURRENGO TXINTXARRI UZTAILAREN 8AN KALERATUKO DUGU

Herriko festen aurretik kaleratu dugun aldizkari berezia irakurtzen ari zara orain. Jaien ostekoa uztailaren 8an argitaratuko dugu, 1ean oraindik ospakizunen zurrumbiloi sartuta egongo garelako. Hori ere ohi baino mardulagoa izango da, 32 orrikoa, eta sanpedroen zein Sorgin Jaien hainbat une ekarriko ditu.

Uztailean zehar beste hiru agerkari publikatuko ditugu, hamasei orrikoak, arruntak: 15ean, 22an eta 29an. Ondoren, merezitako atsedena hartuko du lantaldeak, irailera arte. Gogoratu herrian gertatzen denaren berri izateko beste bide bat dela www.txintxarri.eus ataria.



- Ekainaren 28tik uztailaren 2ra afariak emango ditugu; errazioak eta bokatak.
- Ekainaren 29an, uztailaren 2an eta 3an menu berezia izango dugu.
- Gainerako egunetan, bazkaltzeko eguneko menua, beti bezala!

LASARTE-OKIA GORA SORGIN JAIK ETA SAN PEDROAK!



ASKE MAITE ASKE BIZI!

bertako

igogailuak | ascensores

www.bertako.eus

GIPUZKOA 943 903 450

Ondo pasa San Pedro Jaietan!

Uraitz, S.L.



**Igeltseritza
Orokorra**

• BARRUKO BERRIKUNTZAK

• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAIL-
LEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ
BOTATAKO ARTELAKIA) ETA
S.A.T.E. SISTEMA

• GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU
GEHIGARRIRIK GABE

• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA
DUTXA EXTRALAUARENGATIK
EGUN BAKARREAN

Telefona

693 05 93 92
943-56 66 40

uraitz@uraitz.com
www.uraitz.com

BULEGOA:
Geltoki kalea, 15 LASARTE-ORIA

Maitte



ETELU

Ondo pasa festetan eta asko disfrutatu!



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943-36 48 86 • www.mbetelu.com

SAN PEDRO JIAK



**TTAKUN KULTUR ELKARTEA
SAN PEDRO JIAK 2022**

PATXINTXI SARIAK
EKAINAK 28 | 12.15
UDALETXE ZAHARREKO BALKOIAN
BEA EGIZABALEKIN

**MAKARRONADA ETA
BUSTI BLAI JAIA**
EKAINAK 28 | 12:30
12:30 | TXUPINAREN ONDOREN OKENDORA
13:00 | KALEJIRA ATSOBAKARRERA
14:00 | MAKARROI JAN HERRIKOIA | UR JOLASAK
15:45 eta 16:00 | AUTOBUSA ORIAKO ELIZARA

SORGIN DANTZA
EKAINAK 28 | 16:30
ORIAK
OKENDO PLAZARA

ZIKIRO AFARIA
EKAINAK 28 | 21:30
OKENDO PLAZAN

KANTU DANTZA JIRA
EKAINAK 29 | 12:00
SAGARDOTEGI KALETIK
HERRIAN BARRENA ETA
OKENDO PLAZAN AMAITU

SAGARDO DASTAKETA
EKAINAK 29 | 18:00
OKENDO PLAZAN
SARDINA JANA ETA
ERROMERIA

 **aldaz**
hortz klinikak · clínicas dentales

943-36 63 77

LASARTE - TOLOSA - ELGOIBAR

GORA SAN PEDRO JIAK!

**EZ GALDU AUKERARIK
TITANIOZKO INPLANTEETAN
UDA HONETAN!**

RPS 181/19

